



FORU AGINDUA

Kirol Zerbitzua
Esp. zk.: 18 D 03

Aldez aurreko onespina ematea Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren foru agindu proiektuari, zeinak onesten baititu Arabako Lurrealde Historikoko toki erakundeentzako eskola kiroleko programa eta hura arautzen duen araudia 2018-2019 kanpainarako.

Ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko kirolarenak, xedatutakoaren arabera, lurralde historikoetako foru organoei dagokie, bakoitzaren lurralde eremuan, autonomia erkidegoan eskola kirolaren gaian dagoen araudia garatzea eta gauzatzea, azken eginkizun honetan udal administrazioarekin koordinaturik.

Halaber, lege horrek eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak, eskola kirolari buruzkoak, ezarritakoaren arabera, Arabako Foru Aldundiari dagokio eskola kiroleko urteko programak egin, onetsi eta betearaztea, xedapen horietan jasotzen diren jarraibideen arabera.

Eskola kiroleko programak bideratuta egongo dira haurren eskola heziketa integrala osatzera, ikasleen nortasuna harmonikoki garatzera, baldintza fisiko eta osasun baldintza egokiak lortzera, eta, urteak aurrera joan ahala, kirola egiten jarrai dezaten prestatzera.

Arabako Foru Aldundiaren esparruan, Euskara, Kultura eta Kirol Saila da eskola kiroleko programak egin, onetsi eta betearazteko ardura duena, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuaren ondorioz, zeinaren bidez onetsi baitzen Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organiko eta funtzionala. Saileko diputatuak erregelamendu ahala egikaritzeko eskumena du, bere sailari dagozkion gaietan.

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren ekainaren 8ko 189/2018 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen prozedura has zedila Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren foru agindu proiektu hau lantzeko: Arabako Lurrealde Historikoko toki erakundeentzako eskola kiroleko programa eta hura arautzen duen araudia onestea 2018-2019 kanpainarako.

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura onesten duenak, bere I. eranskineko 12. artikuluan arautzen duenez “testu arauemaileen proposamenak idatzi ondoren, prozedura hasteko ebazpena eman duen organoaren aurretiazko onarpena jaso beharko dute proposamenok, bidezkoak diren negoziazio, entzunaldi eta kontsulta izapideei ekin baino lehen.”

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Onespena ematea Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren foru agindu proiektuari, zeinak onesten baititu Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzako eskola kiroleko programa eta hura arautzen duen araudia 2018-2019 kanpainarako. Proiektu hori foru agindu honen eranskinean ageri da.

Bigarrena.- Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren foru agindu proiektu honen prozeduraren instrukzio izapideekin jarraitzea: Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzako eskola kiroleko programa eta hura arautzen duen araudia onestea 2018-2019 kanpainarako. Izapide horiek Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuan egingo dira, Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzak hala eskatuta.



ERANSKINA

FORU AGINDUA

Kirol Zerbitzua
Esp. zk.: 18 D 03

Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzako eskola kiroleko programari eta hura arautzen duen araudiari 2018-2019 kanpainarako.

Ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko kirolarenak, xedatutakoaren arabera, lurralde historikoetako foru organoei dagokie, bakoitzaren lurralde eremuan, autonomia erkidegoan eskola kirolaren gaian dagoen araudia garatzea eta gauzatzea, azken eginkizun honetan udal administrazioarekin koordinaturik.

Halaber, lege horretan eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuan, eskola kirolari buruzkoan, ezarritakoaren arabera, Arabako Foru Aldundiari dagokio eskola kiroleko urteko programak egin, onetsi eta betearaztea, xedapen horietan jasotzen diren jarraibideen arabera.

Eskola kiroleko programak bideratuta egongo dira haurren eskola heziketa integrala osatzera, ikasleen nortasuna harmonikoki garatzera, baldintza fisiko eta osasun baldintza egokiak lortzera, eta, urteak aurrera joan ahala, kirola egiten jarrai dezaten prestatzera.

Arabako Foru Aldundiaren esparruan, Euskara, Kultura eta Kirol Saila da eskola kiroleko programak egin, onetsi eta betearazteko ardura duena, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuaren ondorioz, zeinaren bidez onetsi baitzen Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organiko eta funtzionala. Saileko diputatuak erregelamendu ahala egikaritzeko eskumena du, bere sailari dagozkion gaietan.

Xedapen hau Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren ekainaren 8ko 189/2018 Foru Aginduaren bidez hasi zen lantzen, eta, ondoren, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren ...aren.....(e)ko .../2018 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen alde aurreko onespena ematea proiektuari. Halaber, alde aurreko kontsulta publikoa eta entzunaldia egin dira, jendaurrean jarri da, arau eraginaren txostena eta kontrol ekonomiko eta araugintzazko txostena egin dira, eta legezketasun kontrola igaro zaio.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, gobernuen eta administrazio publikoen araugintza ahala erabiltzean aplikatu behar diren zenbait printzipio eta teknika ezarri ditu, oinarritzotzat jotzen dituenak. Hori dela eta, maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan eta administrazio prozedura erkidearen oinarritzko araudian jasotzen diren arauketa onaren printzipioak betez, dekretu hau izapidetzean begiratu egin dira printzipio horiek; hain zuzen, beharizan, eraginkortasun, proportzionaltasun, segurtasun juridiko, gardentasun, eta efizientziaren printzipioak.

Programa hori eta hura 2018-2019 eskola kirolaren kanpainarako arautzen duten arauak onesteko premiak badu arrazoi bat, eta da Arabako Foru Aldundiari dagokiola eskola kiroleko urteko



programak egin, onetsi eta gauzatzea, halaxe xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko kirolarenak, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak, eskola kirolari buruzkoak. Proposatutako arauketa da hori bermatzeko tresnarik aproposena.

Proporzionaltasun printzipioaz den bezainbatean, proposatutako arauketak eskubideak esleitzen dizkie pertsona administratuei, bai eta betebeharrak ezarri ere. Ase nahi den premiari erantzuteko ezinbestekoak diren arauak jasotzen ditu, eskubideak gutxiago murrizten dituen edo hartzaileei betebehar gutxiago ezartzen dizkion beste neurririk ez dagoela egiaztatu ondoren.

Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, proposatutako arauketa ez baita kontraesankorra Europar Batasuneko zuzenbidearekin konparatuz gero, ezta gainerako ordenamendu juridikoarekin alderatuta ere. Nahikoa justifikatua gelditzen da bai ordenamendu juridikoan sartzen dela bai hura ematen duen organoa horretarako gaitua dagoela.

Gardentasun printzipioaz den bezainbatean, kontuan izan behar da kasu honetan beharrezkoa dela aldez aurreko kontsulta publikoko, entzunaldiko eta jendaurrean jartzeko izapideak egitea, 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinak xedatutakoarekin bat etorritz. Behin onetsi ondoren, ALHAOn argitaratuko da, denek jakin dezaten, eta hura eta hura egiteko agiriak kontsultatzeko moduan jarriko dira, gardentasunari buruzko araudiaren arabera.

Eraginkortasun printzipioaz den bezainbatean, proposatutako arauketa horrek, duen izaeragatik, ez dakarkie herritarrei ez administrazio karga osagarririk ez premiagabekorik, ez baliabide publikoen kontsumo handiagorik.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Bakarra.- Onspena ematea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzako eskola kiroleko programari eta hura arautzen duen araudiari 2018-2019 kanpainarako. Hona hemen zehaztuta (foru agindu honen eranskinetan ageri dira):

- Arabako Lurralde Historikoko eskola kirolaren programa toki erakundeentzako, 2018-2019ko kanpaina (I. eranskina).
- Toki erakundeek eskola kirolaren 2018-2019ko kanpainan egiten dituzten eskola kirol jardueren araudia (II. eranskina).
- 2018-2019 kanpainako eskola programaren barruan ez dauden eta toki erakundeek antolatzen dituzten kirol jarduerak antolatzeko baimenak emateko prozedurari buruzko arauak (III. eranskina).

AZKEN XEDAPENAK



Lehenengoa. Gaitzea

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko zuzendariari ahalmena ematea foru agindu hau betearazteko beharrezkoak diren baimenak jaulki ditzan.

Bigarrena. Indarrean sartzea.

Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.



Foru aginduaren I. eranskina

Arabako Lurralde Historikoko eskola kirolaren programa toki erakundeentzako. 2018-2019ko kanpaina.

14/1998 Legeak, Euskadiko kirolarenak, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak, eskola kirolari buruzkoak, xedatzen dutenaren arabera, Arabako Foru Aldundiari dagokio eskola kiroleko urteroko programak landu, onartu eta gauzatzea, aipatutako xedapen horietan jasotzen diren jarraibideekin bat etorriz.

1. - Xedea

Ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko kirolarenak, ezartzen duenari jarraituz, honako hauek dira eskola kirolak: nahitaezko eskolatze aldiaren zehar ikasleek egiten dituzten kirol jarduerak antolatutakoak.

Gizatalde bakoitzaren ezaugarrien arabera, hainbat jarduerak egin ahal izango dira, baina gehiengoaren parte hartzeak eta kirol prestakuntza teknikoa eta fisikoa helburu duten jarduerak izango dute lehentasuna.

Araudi honen xede diren jarduerak eskola orduetatik kanpo egin behar dira, ahal dela; dena den, horietako batzuk eskola orduetan antolatu ahal izango dira.

2. - Eskumenak

Arabako Foru Aldundiari dagokio eskola kiroleko urteroko programak landu, onartu eta gauzatzea. Hala ere, arau bidez ezartzen diren baldintzak betetzen badira, Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak baimena eman ahal izango du eskola kirolaren programan jasotzen ez diren kirol jarduerak antolatzeko, 2002. urtean edo geroago jaiotako eskola umeentzat.

3.- Kategoriak eta adinak

Kategoria	Jaioturtea	Ikasturtea
Benjamin aurrekoak	2012-2011	Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. maila
Benjaminak	2010-2009	3º-4º E. Lehena
Kimuak	2008-2007	Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak
Haurrak	2006-2005	1º-2º DBH-KO 1. eta 2. maila
Kadeteak	2004-2003	DBHko 3. eta 4. mailak

4. - Parte hartzeko egiturak



Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak edo beren kudeaketa organoak, legez eratuak eta beren helburuen artean kirolaren sustapena dutenak.

5. - Programaren iraupena

Eskola kiroleko 2018-2019ko kanpaina 2018ko irailaren 1etik 2019ko ekainaren 30era bitartean egingo da.

Hala ere, Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak baimendu edo antolatu ahal izango ditu beste hasiera eta amaiera egun batzuk dituzten jarduerak.

6. - Eskola kiroleko programak

Toki erakundeentzako eskola kiroleko programa garatzeko araudiak.

- Toki erakundeek egiten dituzten eskola kirol jardueren araudia (II eranskina).

Arabako Lurralde Historikoko ikasleek kirol arloan dituzten beharizan guztiak betetzeko asmoz, toki erakundeek eskola kirolaren esparruan burutu ditzaketen kirol jarduerak ezartzen dira.

- 2018-2019ko programaren barruan ez dauden eta toki erakundeek antolatzen dituzten kirol jarduerak antolatzeko baimenak emateko prozedura. (III eranskina).

2018-2019ko eskola kirolaren programan jasotzen ez diren eta toki erakundeek antolatzen dituzten kirol jarduerak antolatzeko baimenak emateko prozedura arautzea da xedea.

7. - Aseguruak

Eskola kirolaren kanpainan parte hartzen duen toki erakundeak, beharrezko aseguru nahikoak eduki beharko ditu, edozein ezbehar gertatzen horri aurre egin ahal izateko.

Eskola kiroleko kanpainan parte hartzeko edozein sistematan parte hartzen duen toki erakunde orok horren ezaugarriak ezagutarazi beharko dizkie parte hartzaileei eta bereziki adingabeen ordezkari, eta batez ere honako datu hauek: aseguruaren estaldura sistema, ikaslea izena emanda dagoen erakundearen antolaketaren ezaugarriak, eta egiten duten kirol jarduerara osatoro ezagutzeko interesgarriak izan daitezkeen datu guztiak.

8. - Publizitatea

Eskola kiroleko programa hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahalik eta hedapen handiena emango zaio.

9. - Garapena

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak, garapenerako araudi guztiak aurrera eramateko egokitzat jotzen dituen ebazpenak hartuko ditu.

10. - Interpretazioa



Araudi honen interpretazioaren inguruan sortzen den edozein zalantza, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuak ebatziko du.

11. - Errekurtsoak

Eskola kiroleko programa honen aurka nahiz beraren ondoriozko administrazio egintza ororen aurka egin ahal izango da urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutako kasuetan eta eran.

12. - Azken xedapenak

12.1 Eskola kirolaren 2018-2019 kanpainako programarako izena ematen duten erakunde guztiek nahitaez onartu beharko dituzte baldintza orokorrak edo kasu bakoitzean ezartzen direnak. Baita ere, onartutako proiektua edo programa ikuskatzeko, jarraitzeko eta egiaztatzeko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak izendatzen dituen pertsonak bertan izatea onartu beharko dute.

Horretarako, izena emandako erakundeak behartuta daude egindako jarduerekin zerikusia duten eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailak eskatzen dizkien datu eta agiri guztiak aurkeztera.

12.2 Parte hartzen duten erakundeek beren gain hartzen dituzte jarduera egiteak sor ditzakeen era guztietako erantzukizunak.

Foru aginduaren II. eranskina

Toki erakundeek eskola kirolaren 2018-2019ko kanpainan egiten dituzten eskola kirol jardueren araudia.

1. - Erakunde onuradunak

Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak edo beren kudeaketa organoak, legez eratuak eta beren helburuen artean kirolaren sustapena dutenak.

2. - Jarduerak

Hainbat kirol mota irakasteko jarduerak, lehiaketa ofizialetan parte hartzearekin loturarik gabeak, horietan parte hartu nahi duten ikasle guztientzat eskaintzen badira, kirola egiteko beren gaitasuna dela-eta inolako murrizketarik gabe.

Izena emandako ikasleen osoko hezkuntzan laguntzen duten kirol jarduerak egingo dira, hezkuntza aldetik nahiz jolas aldetik aberasgarria izateko moduan.

Eskola kirolari buruzko dekretuak (Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 125/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, eskola kirolari buruzkoa) jasotako berariazko zehaztapenekin bat etorritz, toki erakundeek beste mota bateko partaidetza jarduerak susta ditzakete, batez ere ikastegientzat.

Jarduera motak:



Besteak beste, ondoko jarduera hauek egin ahal izango dira:

a) Kirolean hasteko jarduerak: Atal honen barruan, ondoko jarduera hauek sartzen dira:

- Kirol jarduera anitzak: Gorputz hezkuntza, kirol mota jakin bat praktikatzen sartu gabe. Jarduera horietan, lehenetsun handiagoa ematen zaio mugikortasun jardunari eta trebetasunak eskuratzeari, kirol jakin batean trebatzeari baino. Hainbat kirol egiten hastea, ikasturtean zehar.

- Kirol bakarreko jarduerak (lehiaketarik gabeak): kirol jarduera bakarra egingo da kirol eskolako 2018-2019 kanpainak irauten duen aldi guztian zehar..

b) Olgetazko jarduerak: kirol irakaskuntzako jarduerak dira eta haien helburua da trebetasuna hobetzea lehiak kanpoko ohiko praktikaren bidez eta kirol aztura osasuntsuak lortzea lehiak kanpoko kirol praktika moderatuaren bidez. Beste eranskinetako jarduera ludiko eta aisialdikoak erritmoa eta musika oinarri dutenak ez dira sartuko.

c) Kirol- eta kultur jarduerak: kultur jarduerak dira, kirolaren historia eta garapenaren edo mugimendu olinpikoaren edo eskola kirolaren ingurukoak, edo eskola kirolarekin lotutako beste edozein jarduera. Betiere, garatu beharreko alderdien artean lehiaketa duten jardueretan, hori programaren helburuak iristeko bide bat izango da, ez helburua bera.

3. - Jardueren iraupena

Eskola kiroleko kanpaina 2018ko irailaren 1ean hasi eta 2019ko ekainaren 30ean amaituko da.

Edozein motatako jarduerak egiteko gehieneko epea 2019ko ekainaren 30ean amaituko da.

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak beste egun batzuetan hasten edo amaitzen diren jarduerak antolatu edo baimendu ahal izango ditu, aldeztatik horretarako idatzizko eskaera arrazoitua aurkeztuta.

4. - Kategoriak

Kategoria	Jaioturtea	Ikasturtea
Benjamin aurrekoak	2012-2011	Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. maila
Benjaminak	2010-2009	Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak
Kimuak	2008-2007	Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak
Haurrak	2006-2005	DBH-KO 1. eta 2. maila



Kadeteak	2004-2003	DBHko 3. eta 4. mailak
----------	-----------	------------------------

5. - Taldeak:

Talde guztiek monitore-entrenatzaile bana izan beharko dute nahitaez. Hark dagokion kirol titulazioa eduki beharko du, eta komeni da bere ardurapean ez izatea 25 kirolari baino gehiago.

6. - Joan-etorriak

Toki erakunde antolatzailearen ardura izango dira eskola kirolaren 2018-2019ko kanpainaren barruan antolatutako jarduerak egiteko beharrezkoak diren joan-etorriak.

Dirulaguntzak kalkulatzeko garaian konputatuko dira joan-etorri horiek sortutako gastuak.

Salbuespen gisa, Gasteiztik kanpo antolatutako eskola igeriketa kanpaina eta herri kirolen eta euskal piloten topaketak egiteko beharrezkoak diren joan-etorriak Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuak eskaini ahal izango ditu, aldeztatik toki erakunde antolatzaileak eskaera eginda.

7. - Erantzukizunak bere gain hartzea

Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek beren gain hartu beharko dituzte dagozkien eskumenak gauzatzeagatik izan ditzaketen erantzukizun guztiak, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Foru aginduaren III. eranskina

2018-2019 kanpainako eskola programaren barruan ez dauden eta toki erakundeek antolatzen dituzten kirol jarduerak antolatzeko autorizazioak emateko prozedurari buruzko arauak.

14/1998 Legeak, Euskadiko kirolarenak, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak, eskola kirolari buruzkoak, xedatzen dutenaren arabera, Arabako Foru Aldundiari dagokio eskola kiroleko urteroko programak landu, onartu eta gauzatzea, aipatutako dekretuan jasotzen diren jarraibideekin bat etorritik.

Salbuespen gisa, lurralde historikoetako organo eskudunek baimena eman ahal izango dute urteko programetan jasotzen ez diren kirol jarduerak antolatzeko.

1. - Xedea

Foru agindu honen xedea da toki erakundeek eskola kiroleko 2018-2019 kanpainako programan ez dauden eskola kiroleko jarduerak antolatzeko baimenak emateko prozedura arautzea.

2. - Eskaerak



Aipatutako kirol jarduerak antolatzeko autorizazio eskabideak Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuan aurkeztu beharko dira, gutxienez jarduera horien hasiera baino hilabete lehenago, aurrerapen txikiagoaz eskatzea bidezkotzen duen salbuespenezko arrazoirik izan ezean.

3. - Dokumentazioa

Aipatutako baimenak eskuratu nahi dituztenek ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Autorizazio eskaera, behar bezala beteta.
- b) Autorizazioa emateko arrazoiaren azalpena –bereziki, jarduerak egokitzen direla honako hauetan jasotako arau eta printzipioetara: 14/1998 Legea, Euskadiko kirolari buruzkoa, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua, eskola kirolari buruzkoa, eta 2015-2016 ikasturterako eskola kiroleko jardueren programa.
- c) Jardueretan parte hartuko duten eskola umeen zerrenda, egingo den jardueraren ezaugarriak (lekua, egunak, ordutegia, iraupena, mediku kontrola, laguntza aseguruak, erantzukizun zibila, etab.).
- d) Kasuan kasuko aseguru poliza.
- e) Beste batzuk

4.- Ebazpena

Eskabidea Kirol Zerbitzuan aurkeztu eta bi hilabeteko epean hark ez badu ebazpenik hartzen, eskatutako autorizazioa emandakotzat hartu ahal izango da.

Eskabideak ez baditu betetzen araudi honetako 3. artikuluan adierazten diren baldintzak, edo eskabidearen punturen bat argitu edo justifikatu behar bada, eskatzaileak 10 egun izango ditu akatsa konpontzeko edo eskatutako agiriak edo argibideak aurkezteko. Epe hori igaro eta ez badu hala egin, eskaerari uko egin diola iritziko da, bidezko ebazpenaren bitartez. Hamar eguneko epe horretan, etenda geldituko da baimenaren izapidetzea.

5. - Baimenak

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuaren buruari dagokio 2018-2019 ikasturteko programaren barruan sartzeko ez diren kirol lehiaketak antolatzeko autorizazioen berri izatea eta haiei buruz ebaztea.

Autorizazioak emateko, hainbat baldintza ezarri ahal izango zaizkie eskatzaileei.

Autorizazioa emateko ebazpenean jasotako baldintzak ez badira betetzen, hura ezeztatu ahal izango da.



6. - Arauak haustea

Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzak jakinez gero onartutako programetan sartuta ez dauden eskola kiroleko lehiaketak egiten ari direla behar den autorizazioa eduki gabe, jarduera horiek berehala bertan behera uztea erabakiko du.

Jarduerak oraindik egin ez badira, Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzak haien inguruko argibideak eskatu eta, hala badagokio, jarduera horiek debekatu ahal izango ditu.

